

Irakasgaia: Psikolinguistika

Irakaslea: Itziar LAKA MUGARZA

Ikaslea: Irati URIBESALGO MUÑOZ

“HITZA: HOTSA ETA HUTSA” KONFERENTZIAREN LABURPENA

Itziar Lakak emandako hitzaldi honek “hitza” du ardatz, eta hitzaren eta hutsaren arteko hausnarketarekin hasten da. Hitza amaraunarekin alderatzen du, batzuetan armiarma sarea bezain ikustezina egin dakigukelako bere presentzia. Hizkuntza definitzen saiatzean, hizlariak dio hizkuntza ez dela jasotzen dugun edozein seinale edo hitz egiteko erabiltzen dugun adierazpena; hizkuntza mundu kontzeptualaren eta gure zentzumenek atzematen duten seinalearen arteko hartu-eman baizik. Testamentu Zaharra zitatu, argi uzten saiatzen da hizkuntza ez dagoela kanpoaldean gudan baizik, eta bizidunik gabe ez dela hizkuntzarik.

Bere uste filologikoak adibidez ilustratzeko, haur txiki bat erabiltzen du hitzaldiaren ia hasieratik. Haurra, haurdunaldiaren azken 3 hilabeteetan dagoenetik jada, hizkuntzazkoak diren hotsak identifikatzeko gai da. Gerora, mundu kontzeptuala zein hizkuntza atzemateko dituen mekanismoak identifikatzeko duen gaitasun kognitiboaz mintzatzen da. Baina haurraren hizkuntzarekiko pertzepzioa ez da kontsonanteek edota bokalek transmititzen duten informazioa, hizkuntzaren erritmoa eta entonazioa baizik. Hori eta beste pertzepzio kognitibo mota batzuk ere, ugaztun guztiok amankomunean dugun baliabidea dela dio Lakak. Hurrek negar egitean ama hizkuntzaren aldera hurbiltzen direla ere badio, batzuek gorantz negar egiten dutela eta besteek beherantz. Animaliangandik banatzen gaituen faktoreetako bat aldiz, jasotzen dugun seinalea segmentatzeko dugun gaitasuna da. Berak fonemekin ilustratzen du ideia hau, ulertterraza egiten delako fonema katearen segmentazioa. Hala ere, entzuten dugun hizkuntza emaitza konplexu bat dela diosku, jasotako eta gure burmuinetako konputazioen arteko emaitza, alegia.

Jarraian, hizkuntzen hierarkiaz mintzatzen da objektu-aditz (euskara kasu) eta aditz-objektu (gaztelera adibide) hizkuntza modeloen hitz kategorien hurrenkera aintzat harturik, gutxi gorabehera mundu mailan kantitate antzekoan daudela aipatzen du. Hizkuntza mota hauekiko zalantza batzuk planteatzera pasatzen da hizlaria. Duela urte batzuk hurrek hitzen ordena ikustean hizkuntzak nola funtzionatzen duen aurreikusten zutela uste bazen ere, gaur egungo laborategi askotan erritmoekin egiten da lan; besteak beste, hizkuntza artifizialari esker. Interesgarria deritza elebitasun egoeran dauden gurea bezalako gizarteetan hizkuntza mota desberdinen arteko ikerketak egitea, hurrek bi hizkuntzen elkarbizitza nola prozesatzen duten ulertzeko. Hizkuntzak bere oinarrian duen beste garrantzizko ezaugarrietako bat errekurtsibitatea dela dio.

Hitzaldiari amaiera emateko, lehen hizkuntzaren, bigarren hizkuntzaren eta hirugarren hizkuntzaren prozesamenduaren arteko aldeaz hitz egiten du, ikerketa askoren ondoren ondorioztatuz hiztun elebidun simetrikoen kasuan (lehen zein bigarren hizkuntzen arteko itzulpenetan denbora alderik nabaritzen ez den horietan) hirugarren hizkuntza lehen hizkuntzara itzultzeko behar duten denbora tarte bera dela. Honenbestez, argi uzten du elebidun simetrikoen hizkuntzen prozesamendua ez dagoela hizkuntza gaitasunen menpe, haratago doan zerbait dela dio. Amaierako hausnarketa bezala, entzulea eleaniztasunaren garrantziaz informatu nahi du, besteak beste, gaixotasun neurodegeneratiboei aurre egiterako garaian eman daitezkeen aldeak mahaigaineratuz.